



2 KULTURA

Semblante Andaluz elkarteak Aste Kulturala ospatuko du

Gaur hasi eta igandera bitartean, Semblante Andaluz elkarteak Aste Kulturala eramango du aurrera. XIV. edizio honetarako egitarau anitza antolatu du elkarteak. Asteazkenean zehar txapelketak izango dira elkarteetako egoitzan. Asteburuan, berriz, Okendo plazara lekualdatuko dira ekintzak herritar guztiak goza dezaten. Musika, dantza, kantuak, haurrentzako jolasak... denarik izango da, baita Andaluziako jakiak dastatzeko aukera ere.



Lehenengo Aste Gastronómicoan parte hartuko duten elkarte gastronomiko, taberna eta jatetxeetako kideak Udal ordezkariekin eta Martin Berasategiarekin egon ziren aurkezpenean

5 LANDABERRI

Berrogeita hamar urteko ibilbidea, kantuan gogoratuz

Landaberri Ikastolaren mende erdiko ospakizunek aurrera jarraitzen dute eta ostiral gauean, astean zeharreko ekintzen ostean, 'Bertso berriak, Landaberrin ibilitakoek jarriak' bertso saio berezi egin zen Manuel Lekuona kultur etxean. Urte luze guzti hauetan bizi eta gertatutakoak bildu zituzten bertso musikatu eta antzerkiaren bitartez.



Gastronomiaz gozatzeko astea

Elkarteetan erakustaldiak eta pintxo potea izango dira lehen edizio honetan

Lasarte-Oria I. Aste Gastronómicoa antolatu da. Gaurtik ostiralera arte, plater eta pintxo berezietan gozatu ahalgo da bi ekimenetan: 'Plater gastronomikoa' eta 'Pintxo pote gastronomikoa'.

Jesus Zaballos Lasarte-Oriako alkateak, Martin Berasategui sukaldariak, Beatriz Juez Sozioekonomia arloko batzordeburuak eta Dioni Avila teknikariak azaldu zituzten I. Aste Gastronómico honetako nondik norakoak.

Jesus Zaballosek azaldu modura, Martin Berasategiarena proposamena izan zen Lasarte-Oria herri gastronomiko bezala ezaguna izatea.

Aste gastronomiko hau da lehen pausoa, Beatriz Juezek azaldu zuenez, "era umilean hasi eta pixkanaka handitzen joatea espero dugu".

Martin Berasategiuk aipatu legez, "Lasarte-Oriako herriari asko zor diot emandako lagun-

tzarengatik eta Donostiaren antzera, Lasarte-Oria herri gastronomikoa izatea gustatuko litzaidake eta beste herrien mirespena izatea. Horretarako guztiok batera egin beharko dugu gogor lan".

Alkateak eta Sozioekonomia arloko ordezkariak eskerrak eman zizkieten lehen aste honetan parte hartuko duten ostalariei.

Honetaz gain, Jesus Zaballosek merkatariek duten 'Tratu on bat' markaren antzera, ostalariei zuzendutako 'Herri gastronomikoa' marka sortuko dutela aurreratu zuen.

Erakusketa eta dastaketa

Astearen egitarauari dagokionez, lehenik 'Plater gastronomikoa' ekimena eramango da aurrera.

Honetan, Lasarte-Oriako lau elkarte gastronomikok atea irekiko dizkiete herritar eta herriko jatetxe edo tabernetako sukaldariak. Goiegi eta Txartel Txokok eta pintxo ibilbideko bi edizioetako irabazleek, Yolanda eta Sancho tabernetako kideek sukaldaritzaren erakusketak egingo dituzte herritarren aurrean. Ostean, platerak dastatzeko aukera izango da.

Gaur izango da lehen saioa Intza elkartearen eta bertan Yolanda kideak izango dira lanean. Bihar, Txartel Txokoko sukaldariak Buruntzapir elkartearen izango dira. Asteazkenean, Ama Guadalupe Extremadura etxean Sanchoko kideen txanda izango da eta azkenik, Udaberri tabernan Goiegi jatetxeak prestatuko du platera, ostiralean.

Saio guztiak 19:00etan hasiko dira eta hauetan parte hartzeko elkarteetan izena eman beharko da, plazak mugatuak baitira.

Pintxo potea

Bestalde, ostegun eta ostiralean, 'Pintxo pote gastronomikoa' izango da herrian zehar.

2kn, Abend, Ainhoa, Arkupe, Avenida, Buenetxea, Furia Beltza, Genesis, Izkiña, Izurde, Gure Etxea, Hiru Aldeta, Ilargi, Insausti, Jalgi, Juantxo, Lasarte, La vie, Trumoi, Txanpa, Viña del Mar eta Yolanda tabernetan pintxo berezi batetaz gozatu ahalgo da.

Pintxoak egiteko eta platerak egiteko osagaiak Martin Berasategi aukeraturakoak dira: hegaluzea, tomateak, antxoak eta piperrak. "Bertako osagaiak dira, merkeak eta sukaldariak pintxoak edo platerak prestatzerako orduan lan ederra egin dezakete haiekin", aipatu zuen Martin Berasategiuk.

Azkenik, Lasarte-Oriako Udalak eta laguntzaileek herritarrei gonbita egin zieten aste honetako ekintzetan parte hartu eta jakiez gozatzera.

ELECTRICIDAD
ARREGUI

www.electricidadarregui.com
http://tienda.electricidadarregui.com/es

600 857 586

Zergatik erosi ur botila bat egarri zaren bakoitzean?



BRITA
fill & go

Zoazen lehura zoazela, eramanez ur filtratua!

"Bisphenol A" gabe



Mahai-gaineko LED flexoak

- ✓ Eredu, kolore eta tamaina ezberdinak
- ✓ Intentsitate eta tonu aldagarriak

Kale Nagusia 39 - LASARTE-ORIA - Tel. 943 36 10 80 - Tel/Faxa: 943 37 25 21

Igeltseritza orokorra

Josue
Igeltseritza S.L.

606 37 21 05

Atallu pol. atallu, 28
USURBIL

josueigeltseritza@euskalnet.net

Fatxaden estaldurak
Estalkien berriztatzeak
Barruko berrikuntzak
Gremioen koordinaketa

ASTE KULTURALA

Andaluziako kultura kalera

Ostiraletik igandera, ekintzak Okendo plazan izango dira

Semblante Andaluz elkarteak, beste urte batez, Aste Kulturala antolatu du. Asteazkenean, elkarrekin izango da ekintzetako kokaleku. Asteburuan berriz, Lasarte-Oria ere kultura erakustaldi honetako parte hartzaile izatea nahi dute eta Okendo plazara aterako dira.

Hamalaugarrenez Semblante Andaluz elkarteak Aste Kulturala eramango du aurrera. Ekimen honen egitarauan Andaluzia Erkidegoko eta euskal kultura uztartu dituzte. Gainera, herritar guztiek goza dezaten, asteburuan ekintzak Okendo plazan izango dira.

Hasiera eta txapelketak

Gaur hasiko dira ekintzak elkartean. Arratsaldeko 20:00etan, Aste Kulturalaren hasiera izango da.

Elkarteko ordezkari, kide eta lagunak eta udal zinegotziek ohorezko ardoa edan

eta mokadu gozo batetaz gozatuko dute. Ekitaldia elkarteko dantza eta abesbatzak girotua izango da.

Astearte, azteazkena eta ostegunean lehiaketan izango dira elkartean, 19:30etik aurrera.

Asteartean, mus txapelketa; asteazkenean, tute txapelketa eta ostegunean, bi txapelketa hauetako finalak eta dardo lehiaketa izango dira.

Ekintzak kalera

Ostiraletik igandera, Okendo plaza izango da bilgune. Musika, dantza, bertsoak eta beste hainbat emanaldik giro-



Amigos del Sur taldeak iaz Golf plazara hurbildutako herritarrek dantzan jarri zituen. Aurten Okendo plazan izango da ostiraletan.

tuko dute plaza. Andaluziako produktuak dastatzeko aukera izango da ere plazan jarriko duten barran.

Ostiraletan, 19:30etik aurrera, asteazkenean txapelketen sari banaketa eta Manolo Solisen emanaldia izango dira.

Ostean, Amigos del Sur taldearen eskutik dantza egi-

teko aukera izango dute herri dantzaldian.

Larunbatean, bote txapelketa, haur jolasak eta puzgarrak, dantza herrikoia eta elkarteko Zambra, Gitanillas del Alba eta Duende dantza taldeen emanaldia izango da. Gau aldean, berriz, DJ Freddy dantzan jarriko du plaza.

Igandean, Xumela eta Semblante Rociero abesbatzen emanaldia, Jon Maiaren bertso saioa, bazkari herrikoia, 'Tala y su banda' taldearen emanaldia eta dantza herrikoia izango dira kultur asteari amaiera emanez.

Semblante Andaluz elkarte arduradunek kide eta herritarrei ekintzetara hurbiltzeko gonbita egiten diete.

Normaltasuna nagusi herriko hautesleketan

Igaro da hilaren hogeita bosta eta berarekin batera pasa berri dugu Eusko Legebiltzarrerako hautagaiak aukeratzeko hauteskunde eguna. Atzo izan zen Euskal Autonomia Erkidegoan bozka emateko eguna eta Lasarte-Oria, normaltasun osoz igaro zen eguna. Goizeko 09:00etan ireki zituzten ateak herriko leku ezberdinetan kokatutako hauteslekuak eta iluntzeko 20:00ak bitarte eman ahal izan zuten botoa lasartearrek. Oraingoan, 14.329 Lasarte-Oriatarrek izan zuten botoa emateko eskubidea; horietatik 14.141 herrian bizi direnak eta 188 kanpoan bizi diren lasarte-


rrak dira. Atzoko egunez, 23 hauteskunde-mahai izan ziren herritarrek botoa eman ahal izateko, horiek guztiak, 13 ataletan banatuak. Zuma-buru Ikastetxeko segurtasun arazoak medio, zazpigarren eta zortzigarren ataletako mahaiak, leku aldaketa izan zuten. Bertan bozkatu behar zuten Lasarte-Oriako bizilagunek, Biyak Bat Jubilatuen Elkartera gerturatu behar izan zuten beraien botoa eman ahal izateko. Atzoko hauteskunde eguna behar bezala antolatzeko, guztira, 207 herritar hautatu ziren hauteskunde mahaietarako; horietatik 69 lasartear aritu ziren lanean eta 207 ordezkari.



Zumaburu Ikastetxean bozkatu behar zuten herritarrek Biyak Bat egoitzan izan zuten botoa emateko hauteskunde-mahaiak.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Txintzarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitzekoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria

943 366 858/943 371 448

G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93

ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintzarri

Erredakzioa:

Maidar Azurmendi, Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Noriega.

txintzarri@txintzarri.eus

Publizitatea: Arantxi Zulaika
publizitatea@ttakun.eus

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odrizola, Maidar Seguro, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

STOCK AZOKA



Produktu ezberdinak izan ziren herritarren eskura Stock azokan, hala nola, jostailuak, haur jokoak, gauza elektrokoak, argazki markoak, arropa, osagarriak edo zapatak. Herritarrak dendetara hurbildu ziren begiratu eta erostera.

Merkealdi bereziak

Hamar dendek haien produktuak kalera atera zituzten

Lasarte-Oriako herritarrek hainbat produktuak merke erosteko aukera izan zuten ostiralean. Aterpea elkarteak dendek urtero legez, stock azoka berezia ospatu zuten.

TXINTXARRI

Stock azokaren edizio berria burutu zen ostiralean Lasarte-Orian. Aterpea Merkatarik elkarteak antolatutako ekimenean hamar dendek parte hartu zuten.

Dendek denboraldiko soberakinak kalera atera zituzten karpetan eta salgai jarri zituzten. Guztia, prezio onean.

Denetarik izan zen herritarren eskura, hala nola, galtzak, kamisetak, jantziak, osagarriak, barruko arropa, haur jolasak, erlojuak, gailu elektronikoak, argazki markoak edo zapatak.

Herritarrak Merceria Aritzta, Bazar Abreu, Alba Moda, Merceria Olmi, Urruzola mertzzeria, Iturbe zapata-denda, Complementos Alda, Kattagorri Jolas, Donna Boutique eta Ola enmarcaciones dendetara

hurbildu, salgaia ikusi eta hainbat izan ziren etxera zerbait eraman zutenak.

Pintxo Ibilbidea

Bestalde, Aterpea IV. Pintxoan Ibilbidea antolatzen hasi da.

Azaroan egingo da ekimena eta honetan parte hartu nahi duten ostalariei elkartearekin harremanetan jartzeko eskatzen die.

Horretarako urriaren 10a baino lehen, 681 610 302 edo 635 739 524 telefono zenbakietara deitu edo itziarurzun@hotmail.com helbide elektronikora mezu bat bidali behar dute interesa duten pertsonak.



Aterpeko dendek karpa bat izan zuten haien salgaiak erakusteko.

Euritan jolasean! tailerra asteartean

Euritan jolasean! proiektuaren bigarren fasea irailaren 28an jarriko da martxan. Parte hartze prozesuaren etapa honetan hiru tailer eramango dira aurrera. Hauetan zein gune estali eta hori nola egin zehaztuko da.

Lehen tailerra, irailaren 28a, asteazkenean izango da Villa Mirentxun. Honetan aurreko faseko diagnostikoa aurkeztu eta beharrak identifikatu dira.

Urriaren 4an, asteartean, Villa Mirentxun bertan bigarren saioa izango da. Lehen-tasunezko beharrak aukeratu ahaliko dituzte herritarrek.

Azkeneko bileran, urriaren 6an, zein gune estaliko diren erabakiko da. Saioa Landaberri-Garraiokoetxea ikastolan egingo da.

Hiru saioak arratsaldeko 18:00etan hasiko dira.

Parte-hartzea

Udalak herritarrak lan-tailer horietan parte hartzeraz gonbi-



Herriko zein parke estaliko den erabakitzeko hiru tailerren egingo dira.

datzen ditu, "Lasarte-Oriako eremu estali berriek non eta nola izan behar duten zehazteko eta horrela udalerriko eguneroko bizitzara hobetzeko".

Udalak azpimarratzen duenez, "prozesu hori ahalik eta adierazgarriena izango bada, ezinbestekoak dira herritarren iritzia eta ekarpenak".

Informazioa

Bestalde, Udalak jakitera

eman duenez, diagnostiko hori eratzeko egindako lanaren emaitzak eskuragarri daude Udalaren web orrialdean, "Euritan ere jolasean! erakusketa Okendo Plazan" albistearen barruan.

Era berean, herritarrek prozesuari buruzko edozein zalantza argitzeko euritanjolasean@gmail.com helbide elektronikoa martxan dagoela gogorarazi du.



Mugikortasun jasangarria sustatuz

Bizikleta eta haur jokoak izan ziren protagonista ostiralean. Lasarte-Oriako mugikortasun astearen azken eguna zen. Ibilbideak edo bigarren eskuko azoka zela eta, bizikletak etxetik ateratzeko aukera izan zuten herritarrek.

Segway-a, herri kirolak, jokoak... Lasarte-Oriako haurrek aspertzeko astirik ez zuten izan Kale Nagusi inguruan.

Era berean, gaztetxoek herriko bidegorri sare eta hainbat errepideetan barrena bizikleta ibilaldiez gozatu zuten.

Okendo plazara hurbildu ziren lagunak bigarren eskuko bizikleta azoka aurkitu zuten bertan. Bizikleta berria edo honekin zer ikusia duen objekturen bat erosi zituzten herritarrek teknikarien laguntzaz.



Aurrekontu Irekiak 2017.

Gipuzkoa hobea eta bidezkoagoa eraikitzeko momentua da orain. Gureagoa den Gipuzkoa. Orain zuk erabakitzen duzu Gipuzkoan zein proiektu nahi dituzun. Informa zaitez proiektuei buruz, zure ideien berri eman eta parte hartu, zure ustez gure lurraldearentzat interesgarrienak diren proiektuak lehenetsiz.

Orain Gipuzkoa. Orain zu.



www.gipuzkoa.eus/partaidetza

URRIAREN 14RA ARTE HAR DEZAKEZU PARTE


943 112 111 • partaidetza@gipuzkoa.eus

 @OrainGipuzkoa #partaidetza  OrainGipuzkoa

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa




Euskararen 9. Maratoia



Irten armairutik! (!!!)

Erronka, Euskararen Maratoitik Euskararen Egunera



Informazioa:

40egun.euskararenmaratoia.eus,
Ttakun Kultur Elkarte (943 37 14
48) edo Udaleko Euskara-Zerbitzua
(943 37 61 84)

40 egun, 6 aste

40 eguneko erronka Euskararen 9. Maratoian hasi eta Euskararen Egunean amaituko da. Ahobizi guztiak aste beteko 6 txandetan banatuko gara: urriaren 22a baino lehen jakinaraziko zaigu Ahobizi bakoitzari erronka gauzatzeko zein aste egokitu zaigun. Lehenengo txandak Maratoian bertan hartuko du lekukoa.

Txanda aldaketak ostiral arratsaldetan egingo dira, bi hain zuzen ere:

1. Lekukoa hartu: Erronka gauzatzeko aholkuak jasoko ditugu, izan ditzakegun zalantzak argitu eta Ahobizi txapa jasoko dugu. Hitzordu honetatik aurrera, Ahobizi izango gara.

2. Lekukoa pasa: Erronka amaitzen dugun ostiralean, asteke bizipenak partekatzeko elkartuko gara eta lekukoa pasako diogu Ahobizi txanda berriari.

Lekukoa hartu aurretik eta lekukoa pasa ostean, Belarriprest izango gara.

Gogoratu, neurketan parte hartzeko Euskararen 9. Maratoia baina lehen izena eman behar duzu!

Bertso berriak mende erdiko ibilbidea gogoratzeko

Kantuan bildu zuten Landaberri Ikastolako berrogeita hamar urtetako historia. Mende erdiko ibilbidea egin du ikastolak eta urte luze horietan guztietan bizi eta ikasitakoak gogora ekarri asmoz, 'Bertso berriak, Landaberrin ibilitakoek jarriak' bertso saio berezia egin zuten, ostiral gauean, Martin Lekuonan. Aurrez zehaztutako hitzorduak agindu bezala, 22:00etan eman zioten hasiera saioari. Ekitaldi hasierako aurkezpenaren ostean igo ziren protagonistak oholta gainera. Inaki Petxarroman, ikasle ohia izan zen saioari hasiera emateaz arduratu zen lehen parte hartzailea. Lasarte-Orian zein ikastolan bizita-koak biltzen zituen bertso sorta bat eskaini zuen, gitarra jotzaileak jarritako doinuez lagunduta. Lehenengo agerrialdiarekin batera, hainbat izan ziren kultur etxeko areto-ko oholta gainera igo ziren ikasle ohi, irakasle eta kideak. Aurrez prestatutako bertsoak eskuetan, Lasarte-Orian eta Landaberri Ikastolan bizi izandakoak ezagutarazi zituzten emanaldia ikustera gerturatu ziren kideei. Askotariko

kontakizunak entzun ahal izan ziren bertso saioan zehar; orain berrogeita hamar urte, 1966. urtean, ikastola sortzeko lanetan jardun ziren gurasoen lan eta indarrak gogoan izan zituzten, behin baino gehiagotan, protagonista gehienek. Horiei guztiei esker hitzak eskaintzeaz gain, ikastolaren alde egindako lana goraiatu zuten. Honekin batera, garai hartan herri euskaldunago baten alde, Landaberrik egindako esfortzuak ere agerian utzi zituzten; ordura arte erdara hutsean mintzo ziren haur askoren eguneroko hizkuntza bihurtu baitzuen Landaberrik euskara. Ez ziren falta izan irakasleekin izandako bizipenak eta txikitako kontakizunak deskribatzen zituzten bertsoak, ez eta Juan autobus gidariarekin egindako bidaiak gogora ekarri zituzten bertso bat edo beste. Giro atsegi- nean igaro zituzten parte hartzaile zein ikusleek bertso saioak iraundako bi orduak; emozio uneak ere bizi izan zituzten askok. Protagonistekin batera kantari aritu ziren ikusleak eta barre zein txalo ugari entzun ziren.



Emanaldi osoan zehar, Landaberri Ikastolaren berrogeita hamar urteetako historia abestu eta antzeztu zuten protagonistek.

ARETO-FUTBOLA.

ISU Leihoak garaile ligako lehen partidan

Herriko bi talderen arteko derbia jokatu zen, larunbatean, Gipuzkoako 1go mailan

Gipuzkoako areto futboleko lehenengo mailan, derbi erakargarria jokatu zuten Lasarte-Oriako Cecilia Kebab Lasarte Ostadar eta ISU Leihoak taldeek udal kiroldegian, larunbatean. Jokoaren hasieratik, etxeko taldea mendean hartu zuen ISU Leihoak eta partida guztian zehar defentsa eta atakean egindako lan onari esker, markagailuan bat eta bosteko aldearekin norgehiagoka irabaztea lortu zuen ISU-k.

MADDI NORIEGA

Larunbatean herriko areto-futbol taldeen arteko norgehiagoka izan zen, herriko Udal kiroldegian. ISU Leihoak eta Cecilia Kebab Lasarte Ostadar taldeek, areto futbol partidua jokatu zuten, eta norgehiagoka honek, Gipuzkoako lehen mailako ligari hasiera eman zion. Hasieratik partidua nahiko taktiko izan zen larunbatean Lasarte-Oriako Udal kiroldegian bi taldeek jokatu zutena. Lehenengo zati osoan, ISU Leihoak taldea izan zen nagusi. Jokoa hasi eta 20. minutuan, lehenengo gola sartu zuen ISU-k eta Cecilia Kebab Lasarte Ostadar taldeak egoerari aurre hartu nahi izan bazion ere, etxeko

taldea markagailuan atzetik zela joan ziren deskantsuko tartera. Partiduaren bigarren zatian hasiera eman eta minutu gutxira, Cecilia Kebab Lasarte Ostadar taldeak egindako akats batzuen ondorioz, ISU Leihoak taldeak bigarren gola sartzea lortu zuen eta markagailuan huts eta biko puntuazioarekin mantendu ziren aurretik. Etxeko taldea gogor saiatu zen bere jokoa aurrera eramaten, baina ez zuen aukera handirik izan nahi zuen jokoa aritzeko. ISU Leihoak taldea defentsa lanetan ondo aritu zen partidua osoan zehar eta jokalariek egindako defentsa zein atakeko lan onari esker, beste hiru gol sartzea lortu zuten partidaren bigarren zatian. Gauzak horrela, markagailuan huts



Cecilia Kebab Lasarte Ostadar eta ISU Leihoak herriko taldeek, derbia jokatu zuten, larunbatean.

eta bosteko aldearekin nagusi zen ISU Leihoak. Partida amaierara iristear zela ordea, etxeko taldeak inolako aukerarik ez zuela uste bazen ere, Javi Vecilla kapitainak, ohorezko gola sartzea lortu zuen, azken minutuan. Cecilia Kebab Lasarte Ostadar taldeak beraz, puntu bat gehitu zuen bere markagailuan eta bat eta bosteko aldearekin ISU Leihoak taldeak eskuratu zuen garaipena. Hasiera

ezin hobea eman zion beraz ISU Leihoak taldeak areto futboleko Gipuzkoako lehenengo mailako ligari. Larunbateko partiduan, hala ere, jokalaria bat baino gehiagoren baja izan zuten eta hori kontua hartu eta denboraldi hasiera dela gehituaz, oraindik landu beharreko zenbait gauza ere badauzka taldeak. Cecilia Kebab Lasarte Ostadar taldea berriz, aurten igo berri da Gipuzkoako areto futboleko bigarren mailatik

lehenengo mailara eta lan handiagoa egin beharko du emaitza hobekien lortu eta maila gorenean mantentzeko. ISU Leihoak taldeko Jon Arocena, Alfonso Molinero, eta Jon Merino izan ziren larunbateko partiduan golak sartu zituzten jokalariek eta Cecilia Kebab Lasarte Ostadar etxeko taldean berriz, Javi Vecilla jokalariek sartu zuten taldeari markagailuan puntu bat eman zion ohorezko gola.

ATLETISMOA.

Amaia Andres, GAFeko presidente berria

Herrian gutxi dira Amaia Andresek LOKE Lasarte-Oria Kirol Elkartearen egin duen lana ezagutzen ez dutenik. Prestatzaile gisa dihardu atletismo alorrean, eta klubeko presidentea ere bada. Hemendik aurrera, beste erronka bati ekingo dio, GAF Gipuzkoako Atletismo Federazioko lehendakari berria baita, Mikel Odriozolari erreleboa hartuta. Andresena izan da kargua hartzeko aurkeztu den hautagaitza bakarra.

Bartzelona 92n olinpiko

Kirolari olinpiko izatera iritsi zen Amaia Andres, Bartzelona 1992ko Jokoetan. 800 metroetako diziplinan aritu zen.

Beasainen hasi zen atletismoa egiten, gimnasia irakasleak bultzatuta. Hori eta gero, Ordiziako Klubarekin hasi zen entrenatzen, eta urteak igaro ahala gero eta maila hobea



Amaia Andres da Gipuzkoako Atletismo Federazioko presidente berria.

eskuratzen, 1992an Bartzelonako Joko Olinpikoetan aritzearaino.

Eliteko kirola utzi ostean, entrenatzaile lanetan hasi zen Andres. Gaur egun, LOKE taldean dihardu, Oscar Goikoe-

txea senarrarekin batera. Gainera, klub horretako presidentea ere bada.

Hemendik aurrera, Gipuzkoako Atletismoko Federazioko lehendakaria ere Amaia Andres bera izango da.

IGERIKETA.

Buruntzaldea IKTko Master taldeko kideek urriaren 3an ekingo diote denboraldi berriari

Urtero bezala, Buruntzaldea IKT 'Master' atala jarriko du martxan, urriaren 3an. Taldera batu nahi dutenek eman dezakete izena jada, www.buruntzaldeaikt.eus web orrialdean.

Aipatu sekzio hori talde jakin bati dago zuzendua dago: 20 urtetik gorakoak behar dute izan, eta igeriketarekin izan daitezke aktiboak, igerilari ohiak, edo kirol horrekin lotutako beste edozein kirol diziplinan aritzen direnak zein triatloiarekin zerikusia duten jardueretan aritu. Helburu nagusia entrenamendua da, eta horretarako, beharrezkoak diren alderdi tekniko, fisiko eta taktikoak landu eta garatzen dira.

Horrekin batera, igerilekuko zein ur irekietako txapelketetarako eta triatloietarako igeriketa ahalmena ere lantzen dituzte, "alderdi soziala eta osasun onura albo batera utzi gabe", Buruntzaldea IKTko kideek zehazten dutenez.



Master atala urriaren 3an hasiko da entrenamendu-saioak burutzen.

Agenda

Gaurtik igandera, Lasarte-Oria



Ekintzez betetako Aste Kulturala

Semblante Andaluz elkartearen Aste Kulturala ospatuko da aste honetan. Egitarau anitza antolatu du. Txapelketak, kontzertuak, haurrentzako jolasak,

puzgarriak... denetarik izango da elkarteko egoitzan edo Okendo plazan. Andaluziako produktuez ere gozatu ahalko da.

SEMBLANTE ANDALUZ ELKARTEA
Gaur, astelehena,
20:00etan
Aste Kulturalaren hasiera, ohorezko ardoa eta luncha. Elkarteko dantza eta abesbatzak girotua.

Asteartea, 19:30ean
Mus txapelketa.

Asteazkena, 19:30ean
Tute txapelketa.

Osteguna, 19:30ean
Dardo lehiaketa eta Mus eta Tute txapelketetako finala.

OKENDO PLAZA
Ostirala 30
19:30ean, Lehaiketan sari banaketa.
20:00etan, Manolo Solisen emanaldia.
23:00etan, Amigos del Sur taldearen emanaldia eta dantza herrikoa.

Larunbata 1
12:00etan, Bote txapelketa.
12:30ean, haur jolasak.
17:00etan, dantza herrikoa.
19:00etan, Zambra, Gitanillas del Alba eta Duende dantza taldeen emanaldia

21:30ean, DJ Freddyren saioa.

Igandea 2
13:00etan, Xumela eta Semblante Rociero abesbatzen emanaldia.
13:30ean, bertso saioa Jon Maiaren eskutik.
14:30ean, Bazkari herrikoa, paella.
17:00etan, 'Tala y su banda' taldearen emanaldia, 'El Barrio' taldearen tributoa.
20:30ean, dantza herrikoa kultur astearen amaierara arte.

Lasarte-Oria

Landaberri 50. Urteurrena

VILLA MIRENTXU

Gaur, astelehena, 18:00etan

Bea Egizabal eta Cesar Marcosek zuzendutako ipuin-kontalari saioa. Kontu Kantoiaren ostean, guraso eta ikasle taldeek haiek presatutako ipuinez gozatu ahalko da.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Asteazkena, 18:00etan

'Biolin Magikoa' antzerkia eskainiko da. Sarrerak saioa hasi baino ordu bete lehenago egongo dira eskuragarri.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Ostirala 30, 22:00etan

'Landaberri mende erdi' antzerkia tau-

laratuko du ikasle-ohien talde batek. Sarrerak saioa hasi baino ordu bete lehenago egongo dira eskuragarri.

LANDABERRI BHI

Larunbata 1, 12:00etan

'Landaberri mende erdi' abestiaren bidoa grabatuko da. Ostean, Udal Musika Eskolako trikitilariak alaituko dituzte kaleak.

MICHELINGO KIROL GUNEA

Larunbata 1, 14:00etan

Bazkaria, emanaldi berezia eta Ttirriki Ttarrakaren saioaz gozatu ahalko da. Tikitak salgai Landaberri ikastolako eraikinetan, osteguna 29a arte.

ANTONIO MERCERO ARETOA

Urriaren 1era arte. Asteazkena zehar, 17:30etik 20:00etara. Larunbatetan,

11:00etatik 13:00etara.

50 urte hauetako argazki eta ikasleen eskulanak bildu dituzte 'Landaberri, oroimenaren basoa', erakusketan.

Euritan jolasean!

VILLA MIRENTXU

Asteazkena 28, 18:00etan

Euritan jolasean! proiektuko bigarren faseko lehen tailerra egingo da. Lehen faseko diagnostikoa aurkeztu eta Lasarte-Oriandauden beharrak identifikatuko dira.

Nagusien Omenezko astea

BIYAK BAT EGOITZA

Larunbata 1

16:00etan, asteari hasiera emateko

bandera igoera egin eta agurra dantzatuko da.

18:00etan, bingo lehiaketa.

20:00etan, lehiaketetako sari banaketa.

ISLA PLAZA

Larunbata 1, 16:30ean

Toka, igela eta pote txapelketak jokatuko dira.

Musika

AMA BRIGITARREN KOMENTUA

Larunbata 1, 19:30ean

Orfeon Logroñes abesbatzaren kontzertuaz gozatzeko aukera izango da. Egitarau anitza aurkeztuko dute. Albo-ka Abesbatzak gonbidatutako taldea dugu.

Herritarren txokoa

Kilometroetara joateko autobusa

Ttakun Kultur elkarteak Hernaniko Dobera elkartearekin batera Bergaran, urriaren 2an antolatu den Kilometroak jaialdira joateko autobusa antolatu du.

Autobusa goizeko 9:00etan aterako da Lasarte-Oriako Tajamar biribilguneko geltokitik. Bergaran 19:00etan izango da buelta.

Txartelak salgai daude Ttakun elkartean. Prezioa 12 eurokoa da. Ttakuneko bazkideek, berriz, 10 euro ordaindu behar dituzte.

Neguko ordutegia kiroldegian

Neguko ordutegia dago indarrean herriko kirol instalazioetan.

Kiroldegiko gunek astelehenetik ostiralera 7:00etatik 22:30era erabili ahal dira. Larunbatetan 9:00etatik 20:00etara dago irekia eta igandetan berriz, goizean 9:00etatik 13:00etara.

Michelingo Kirol guneari dagokionez, astelehenetik ostiralera arratsaldez egongo da irekia, 15:30etik 22:30era. Larunbatetan, berriz, egun osoz erabili ahalko dira gunek ezberdinak, 9:00eta-

tik 20:00etara, eta igandetan goizez bakarrik 9:00etatik 13:00etara.

Odol-ateratzea

Hilabeteko azken astelehenean, irailaren 26an, eman ahal izango da odola Osasun Zentroan, arratsaldeko 17:30etik 20:30era.

Anima zaitzete, odola ordezkazena da eta odol falta dago!

Alboka Abesbatza

Lasarte-Oriako Alboka Abesbatzak herritarrek taldearen parte izatera gonbidatu nahi ditu. Horregatik entsegu batera hurbiltzeko animatzen ditu.

Entseguak Arantzazuko Ama elizaren azpiko lokalean dira astelehen eta ostegunetan 20:00etan. Abesbatzako kide izan nahi duten 15 eta 55 urte arteko herritarrek entseguetara gerturatu eta proba egin ahal dute "izan ere ez da zertan solfeorik jakin behar kantuan gurekin aritzeko".

Informazio gehiagorako 657 651 269 telefonora edota junta@albokaabesbatza.com helbidera idatz daiteke.

Sarean

'Motxian eby' esketx lehiaketa martxan da

Oarsoaldea edo Buruntzaldean bizi diren gaztetxoek 'Motxian eby' lehiaketan parte hartzeko aukera dute.

DBH1, 2, 3 edo 4ko ikasleek bakarka edo taldeka parte hartu ahal dute esketx bat eginez. Oinarrietan azaltzen denez, talde bakoitzeko parte-hartzaile kopuruak eta aurkez daitezkeen lan kopuruak ez du mugarik izango.

Lanen ezaugarriak dago-kionez, gutxi gora-behera minutu bateko iraupena izan beharko du esketxak. Esketxak nahiz Stop Motion edota Meme teknikak erabiliz sortutako lanak izan behar dute. Lanek euskarazko audio mintzatua izan beharko dute nahitaez. Bideo grabazioek originalak izan beharko dute eta beste lehiaketa batera aurkeztu gabeak. Abesti edo doinuren bat erabiltzekotan, Creative Commons-ekoa edo euskaraz abesten duen Euskal Herriko talde batena izan beharko du.

Lanak aurkezteko epea urriaren 10ean irekiko da eta azken eguna azaroaren 18a da.

Irabazleek 300 euroko saria irabaziko dute eskualde bakoitzean. Bigarren bideoak 200 euro eramango ditu eta herri bakoitzeko bozkatuenak, 50 euro.

Oarsoaldea edo Buruntzaldeko euskara zerbitzuek lametzaren laguntzaz antolatutako ekimena dugu. Oinarri guztiak www.motxianeby.eus orrialdean daude eskuragarri.



Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 37 14 48 txintxarri@txintxarri.eus



Xumelak kantu jira txikia eskaini zuen, larunbat eguerdian, Okendo Plazan hasita.

Urre koloreko ospakizunen asteburua

Landaberi Ikastolaren urrezko ezteien ospakizunek ekin-tza ugariz bete zuten asteburua, Lasarte-Orian. Ostiral gaueko bertso saioaz gain, larunbat eta igandean herriko kale eta plazatan ekintza ugari izan ziren adin eta gustu guztietako herritarrentzako.

TXINTXARRI

Eguraldi eguzkitsua lagun, Landaberriko ospakizunen harira, ekitaldiz beterik joan da asteburua, Lasarte-Orian. Ikastolaren berrogeita hamargarren urteurreneko ospakizun ekitaldi

ugarri izan ziren ostiral, larunbat eta igandean. Ostiraleko 'Bertso berriak, Landaberrin ibilitakoek jarriak' bertso saioaz gain, beste hainbat ekintza izan ziren, asteburuan. Larunbat goizean, haurrentzako puzgarriak eta Xumela kantu jira taldearen

emanaldia izan ziren Okendo Plazan. Arratsaldean berri, Eriz magoak haurrentzako magia ikuskizuna eskaini zuen. Deskantsurako tartea hartuta, gauean, Rock estiloko kontzertua eskaini zuten Hilotz, Gabezia eta Skakeo taldeek. Igandean aldiz, ikasle ohien arteko olinpiadak egin ziren Mitxelingo kirol gunean eta txarangak girotutako poteoan ibili ziren eguerdian, herrian barrena. Jende ugari bildu da asteburuan zehar egindako ekintzetan.



Eriz magoak magia ikuskizuna eskaini zien etxeko txikienei.



Txarangak girotutako poteoan ibili ziren igandean herritik barrena.

Neinor
HOMES

ETXEAK BIZILEKUAK BIHURTZEN DITUGU.

GOIEGI HOMES LASARTEKO BIZIGUNE BERRIA

IZENA EMATEKO EPEA 2016/09/30EAN BUKATZEN DA

Lasarte-Orian erroldatuentzat lehentasuna emango da.
1, 2 eta 3 logelatako etxebizitzak egingo dira, 36 guztira
Guztiak terrazak edo/eta jardinarekin
Garaje itxi bikoitzak
Kalitatezko materialeak
Eraikuntza erangikorra
Ingurune paregabea
Salneurri finkatua
Irailaren 30 arte erroldatuak



Maite **B** ETELU



Pertsonengan pentsatzen eraikitzen dugu.
900 11 00 22 - neinorhomes.com